

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Dakigun bezala bezeroa da garrantzitsuen enpresa bat aurrera bultzatzeko orduan. Bezeroa da gure altxorrik preziatuena, eta hau ongi zaintzea da gure eginkizuna. Beraiekiko ditugun harremanak sendotzea izango da erronka, horrela komunitate elkartu eta sendo bat lortuz, bai erabiltzaileen eta baita webgunearen sortzaileen artean. Elkertasuna delako behar dugun indar nagusia.



Bezeroak mantentzeko modu egokiena hauek gure plataforman eroso sentiaraztea dela iruditzen zaigu. Konfiantza eta elkertasuna transmititzen badugu, hauek mantentzeaz gain berriak erakartzeko erraztasun gehiago izango ditugu. Hau lortzeko, sare sozialak aprobetxatuko ditugu berriro ere. Bertatik, gure jarraitzaileekin harreman bat eta interakzio jarraia mantentzea ezinbestekoa egingo zaigu. Gazteek haien bizitzetan hain gertuko dituzten plataformetan jarduera aktiboa eta etengabeko eguneratze, publikazio eta inkestak egingo ditugu. Instagramen kasuan “memeak” ere igoko ditugu gai honek dakarren harresia birrintzeko eta iruzkinetan erabiltzaileen parte hartzea lortzeko.

Erabiltzaileengandik gertu agertuko dugu geure burua, gure arteko erlazioa zuzena izateko, bitarteko faltsurik gabe. Erlazio hori oraindik ere sendoagoa izan dadin, komunitate bat ere osatuko dugu foruaren bidez, horrela bezero banakoaren eta enpresaren arteko harremanaz gain, beste bezero batzuen ere sartuz. Talde handi, oso eta elkartu bat osatuko da denen artean.

Horrez gain, bezeroari zalantzaren bat suertatuz gero, laguntza pertsonala eskainiko zaio, duda guztiak argi daitezen. Honen bidez bere eta enpresaren arteko erlazioa sendotzea lortuko dugu.

Erosotasuna emateko, askatasuna emango diogu bakoitzari bere kabuz bila dezan berak nahi duen informazioa, hau da, autozerbitzuan zentratuko gara. Erabiltzaile bakoitzak webgunea arakatzeko eskubidea izango du,

presiorik gabe, nahi duen modura eta nahi duen momentuan informazioa bila dezan.

Bezeroek kontu bat sortzeko aukera izango dute. Horrela, eguneratzeak egitean haien berri ematen dituzten e-mailak bidaliko dizkiegu. Gainera, denbora mugarik gabeko erabilera eta foroan parte hartzeko (galderak eginez edo erantzunak emanez) eskubidea izango dute. Anonimatua mantentzea nahi badute, erabiltzailearen izenean beraien izena ez den edozein *nickname* jartzea besterik ez dute izango.

Hau guztia ondo lotzea lortzen badugu komunitate handi eta sendo bat osatzea lortuko dugu denon artean, bezeroarekiko harreman estua izango dugu enpresan, eta webgunea erabiltzerako orduan denok eroso, seguru eta parte hartzeko gogoz sentituko gara.

Taldean 5 hizkuntza menderatzen diren arren, bezeroekin ahalik eta harreman handiena euskaraz izatea saiatuko gara, gazte euskaldunei zuzendua dagoenez gure hizkuntza sustatzeko aukera paregabea dela iruditzen zaigulako.